**Munibe** (Ciencias Naturales-Natur Zientziak) • No. 56 (2005) • 171-172 • ISSN 0214-7688

## LOIDI, J., M. HERRERA, I. SALCEDO, A. GALARZA & J.C. ITURRONDOBEITIA. Bizkaiko basoak – Los bosques de Bizkaia. Lurralde-Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea – Instituto de Estudios Territoriales de Bizkaia. Bilbo-Bilbao, 2005.

*383 págs. Encuadernación en cartoné.*

*IÑAKI AIZPURU*




Basoak bere baitan duten natur ondarea ahalik eta era ulergarrienean aurkeztea izan da egileen lehen saiakera nagusia, eta bistan da Javier Loidiren zuzendaritzapean ongi baino hobeto lortu dutela. Nahiz eta horretarako laguntza eskasa izan barneratzen duten bizidunen aniztasun siniskaitza eta beraien artean lotzen dituzten era guztietako erlazio korapilatsuen partetik, biziraupena berekasa zihurtatu dezakeen organismo autonomo bat eratuz, gizakiaren inongo beharrik ez duena alegia.

Lan hori baso zabalak eta ongi egituratuak gordetzen dituzten lurraldeetan erraza gertatzen ez bada ere, interesa duen edonorek zuzenean, lehen pertsonan, bizitzeko aukera izango du. Baina, izan zireneko basoen edertasunaren errainu apala besterik ez diren aztarnekin konformatu behar dugunean, Bizkaia kasu, irakurlearen irudikapena lanean jartzeko deia besterik ez zaigu geratzen.

Hutsune hau bete nahian, liburu erabat grafikoa eskaintzen digute, oraindik gera-

Presentar de forma asequible el patrimonio natural que encierran los bosques es el primer empeño de esta obra, objetivo cumplido con creces a través de la dirección que le ha dado Javier Loidi. Y eso que no resulta fácil trasladar a la sociedad la riqueza en especies vegetales y animales, sumada a las interrelaciones que establecen para conformar una estructura compleja que, sorprendentemente, puede funcionar de manera autónoma, sin la omnipresente intervención humana.

Si lo anterior resulta complicado en lugares en los que todavía se conservan bosques extensos y más o menos bien conservados, a los que cualquier interesado puede recurrir para hacerse una idea práctica de los mismos, en otros como Bizkaia, donde apenas sobreviven pequeños reductos que difícilmente pueden reflejar la exhuberancia de nuestros bosques, no queda más remedio que apelar a la imaginación del lector.

Esta laguna la han cubierto los autores acudiendo a la ilustración en la que, a las

tzen zaizkigun puska horien eta ezaugarriak diren espezie ugarien argazki ederrez horniturik eta Guillermo eta Ricardo Gruber anaien ilustraziolamina dotoreez osatuz.

Testuak ere merezi du patxada osoz irakurtzea, ezagunagoak diren animali eta landareez gain, honelako liburuak ohi ez duten bezalako atalak ere bai ditu, hauen artean, lurzorua eta bere mikrofaunari eskainitakoa edota mikorrizei eta basoaren bizitzan duten funtzioei dagokiona.

Bizkaian zehar geratzen diren azken basoaztarnetako batzuk bisitatzeko aukera emango diguten lau ibilaldi eskaintzen dizkigute beste atal batean eta, azken hitz moduan, gizakiak historian zehar basoekin izan dituen harremanetaz jardun dira eta gaur egun ditugunetaz bereziki. Hemen botatzen digute egileek bere dei nagusia, irrintzi nahian, esku betean galtzen utzi dugun natura ondare hori ahalik eta gehien berreskuratzeko bidean jarri gaitezen eginiko deia.

Liburudendetan erosteko dugun aukeraz gain, Lurralde-Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundearen interneteko helbidean aurkitu dezakegu:

numerosas fotografías de los retazos que quedan y de gran parte de sus especies, se añaden magníficas láminas de conjunto, obra de los hermanos Guillermo y Ricardo Gruber.

También el texto merece una lectura atenta pues además de exponer los componentes más visibles (plantas superiores, vertebrados) contiene unos capítulos originales dedicados a los suelos y su microfauna y a las micorrizas y sus funciones en la vida del bosque.

En otro de los capítulos se nos proponen cuatro itinerarios en los que podemos contemplar algunos de los últimos retazos de bosque en Bizkaia, para terminar con un capítulo dedicado al controvertido tema de la relación del hombre con el bosque a través de la historia, especialmente la de nuestros días. Y es en este capítulo donde los autores toman partido por la recuperación de al menos una parte de este patrimonio natural que, a la vista está, hemos dilapidado a manos llenas.

Además de poder adquirir la obra en las librerías, se ha dispuesto su acceso libre en la dirección de internet del Instituto de Estudios Territoriales de Bizkaia:

**http://ietb.bizkaia.net/Agerkariak/bosques_de_bizkaia/bosques_bizkaia_pre.pdf.**